

Aitor - kantabriar kondaira / Aïtor - Légende cantabre

Hector Iglesias

▶ **To cite this version:**

Hector Iglesias. Aitor - kantabriar kondaira / Aïtor - Légende cantabre. Maiatz, 2009, 49, pp.72-83. hal-00458975

HAL Id: hal-00458975
https://hal.science/hal-00458975

Submitted on 3 Mar 2010

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Agosti Xaho

AITOR – KANTABRIAR KONDAIRA

Itzulpena eta hitzaurrea

Hector Iglesias

Berrikitan, Vahan Sarkisianek, euskararen aditu ezagunenetarik bat nazioarte mailan eta Erevango Estadoko Unibertsitateko irakasle katedraduna dena, XIX. mendeko Joseph-Augustin Chaho idazle ospetsuaren idatzi ugarietarik bat lehen aldikotz frantsesetik zuzenean euskaratzeko eskatu zigun : 1847an argitaratutako obra bateko kapitulua, hau da ondoko obra honetan agertzen dena : *Histoire primitive des Euskariens-Basques, langue, poésie, mœurs et caractère de ce peuple : introduction à son histoire ancienne et moderne*, edo, nahi bada, euskarara itzultzekotan, *Euskotar-Euskaldunen jatorrizko historia, hizkuntza, olerkaritza, populu horren ohiturak eta izaera, bere antzinako eta egungo historiari hitzaurre batekin* izenburutzat daraman idazlanean agertzen den kapitulu bat, erran nahi baita « Aïtor. — Légende cantabre » (173-243) izenburutzat daukana.

Zenbait urte lehenago *Ariel* aldizkarian, erran nahi baita Chahok 1844ean sortua zuen kazeta famatuan, argitaratua izana zen testua dugu idatzi hori — Baionako kazeta horrek teologia judu- girixtinoko arkanjelu baten izena zeraman titulutzat, hebrear kabalako hamar arkanjeluetarik bat, Ariel aingerua Luziferren porrotaren ondoren jainkozko argiaren ekarle bezala kontsideratzen delarik ; adituen arabera izena hebreeratik letorke : « Jainkoaren sua edo lehoia » eta Chahoren arabera izenak erran nahi zuen : *Jinkuaren indarra*, « Jainkoaren indarra » (*Ariel*, 1848ko ekainaren 30ekoa).

Kazeta horretan testua titulu berarekin agertzen zen : « Aitor — Kantabriar kondaira » (*Ariel*, 1845, n° 36, ekaina-ren 8a, 1-2 ; n° 37, ekainaren 15a, 1-2 ; n° 38, ekainaren 22a, 1-2 ; n° 39, ekainaren 29a, 1-2 ; segida eta bukaera, n° 40, uztailaren 6a, 1-2).

1878-1879 urteetan Arturo Kanpionek Aitorren legenda hori gaztelerara itzuli zuen « La Leyenda de Aitor » izenburupean (*Revista Euskara*, Iruñea, 1878, I : 220-230 ; 241-248 ; 281-289 ; 1879 : 12-17 ; 44-53). Duela zenbait urte, gaztelerarako itzulpen hori berrargitaratua izan da : Chaho, J.-A., *La leyenda de Aitor y otros relatos*, Egin Biblioteka, 1995 ; Iñaki Urdanibiaren aurkezpen batekin.

Azkenik, duela guti, Vahan Sarkisianek idazlearen frantsesezko testua armenierara itzulia du : Chaho, J.-A., *La légende d'Aïtor* ; Vahan Sarkisianen itzulpen, hitzaurre eta oharrekin argitaratua, *International Linguistic Academy*, « Asoghik » publishing house (Biarritzeko Hiriak diruz lagundu idazlana), Erevan, 2007.

Hala ere, Kanpionen espainierazko itzulpenak, zeina 1995ean argitaratu obran hitzez hitz berrartua izan baita, akats zenbait agertarazten ditu. Alde batetik, jatorrizko testua ez da bere osotasunean itzulia izan eta bestalde itzulitakoa itzulpen aski librea dela erran daiteke, itzultzaileak ez baitu fidelki itzuli, itzulpen arauek eskatzen duten bezala, Augustin Chahoren testu frantsesa. Gaztelerazko itzulpena aldizkari espezializatu batean argitarazteak, erran nahi

baita Iruñeako *Revista Euskara* delakoan, gaurregun desagertu aldizkari bat, eragotzi zukeen, suposatzekoa da bederen, Arturo Kanpionek jatorrizko testuaren osotasuna itzul zezan.

Jatorrizko testuaren euskaratzeari dagokionez, beharrezkoa da orroitaraztea frantsesezko testu baten euskararako itzulpena beti korapilatsua izango dela, aise uler daitekeen bezala, euskara eta frantsesa baitira bi hizkuntza aski bereziak eta desberdinak.

Aitorren kondairaren frantsesetik euskararako lehen itzulpena

Iparraldeko eskualdeetan euskarak gaurregun bizitzen duen bilakaera soziolinguistikoaren aztertzea konplexua da. Zuberera (Chahok zerabilen euskalkia euskaraz idazten zuelarik) hiltzorian dago eta adituentzat euskalki horren desagerpenak ez du dudarik egiten. Lapurterak (guti gorabehera Sara /Donibane-Lohizune/ Senpere herriek osatu hirukian erabiltzen den euskalkia, Chahok asko estimatzen zuena) behe-nafarreraren aldean indarra galtzen jarraitzen du, Nafarroa Behereko mintzaira, jakina denez, Iparraldeko euskalkirik mintzatuena eta zabalduena izanki.

Azken honi dagokionez, « nafarrera-lapurtera literarioa » izenarekin ezagutzen dena, batez ere idazten delarik, badu gero eta gehiago ikustekorik Bidasoaz haraindiko euskalkiekin, bereziki, nolabait erraiteko, nahiz eta konplexuagoa izan, « gipuzkera batu » bat deitzen ahalko litzatekeenarekin, zeina euskal telebistaren bidez eta ikastolen bidez emeki-emeki sartzen baita Iparraldean barna.

Zer nahi den, itzulpen honetan erabilia dugun idazteko mol-dea izango da, nolabait erraitekotan, « nafarrera-lapurtera literario eta batu » mota bat, zeren, jakina denez, *euskara baturik* ez baita oraindik, Iparraldean behintzat, orai arte euskararen aditz-formak bakarrik « bateratuak », « arautuak », « kodifikatuak » izan direlarik.

Baldintza horietan, euskaldun bakoitzak, hizkuntzako hitzei dagokienez, gehienik gustatzen zaizkionak, edo hobekienik ezagutzen dituenak, erabil ditzake arazorik batere gabe. Hori dela eta, aditz-forma « batuak » edo « estandarrak » erabilzea erabaki dugu, erran nahi baita Euskaltzaindiak arautu aditz-formak.

Hizkuntzako hiztegiei dagokienez, entzute handiko ondoko hiztegi hauek, besteak beste, baliatu ditugu : Pierre Lhanderen *Dictionnaire basque-français* delako hiztegi famatua, Iparraldeko mintzamoldeei dagokienez, oraino erabat ezinbestekoa dena (Paris, Beauchesne, 1926) ; bigarrenik, Pierre Lafitteren *Lexique français-basque* delakoa, André Tournier euskaltzain urgazlearen parte-hartzearekin (Baiona, 1954 ; « Herria »-k argitaratua), kalitate handiko hiztegia, nahiz eta gaurregun guti ezaguna izan ; azkenik, Azkueren *Diccionario Vasco-español-francés* delakoa, 1905-1906 urteetan argitaratua (eta 1984ean berrargitaratua).

Bestalde, Iparraldeko euskalkietan, jakina denez, erranaldiaren zenbait elementuren agerian uztea, erran nahi baita frantses hizkuntzan *c'est... qui/que* erran-moldearen bidez lortzen dena, beti lortuko da aditz-multzoaren alderantzikatzearen bidez : *Aitak ikusi du* → *Aitak du ikusi*, hau da, mugaz haraindian errango litzatekeena : « ikusi du aitak edo (hori) ikusi duena aita dugu ». Bizkaian ere, Txillardegiren arabera, aditz laguntzailea galdegaiaren ondoan ezar daiteke : *laster zara etorri*, etabar. Chahoren testuan aditz-multzoaren alderantzikatzeak ugariak izanik, irakurleari beharrezkoa izanen zaio Bizkaiko eta Iparraldeko euskalkien ezaugarri linguistiko hori ezagutzea nahi badu Zuberotarraren testuaren euskarazko itzulpena ulertu.

Azkenik, ez gara baliatu erran-moldeaz, Iparraldeko euskalkiek orok orai dela guti arte zerabiltena, zeinaren bidez aditz izenaren osagailu mugatua genitiboan jartzen ohi baita, adibidez : *horren egiteko*, « hori egiteko », zeren alde batetik mugaz haraindian ezezaguna baita eta beste alde batetik Iparraldean, jakina denez, hiltzorian baitago, gazteen artean behintzat.

Ohiz kanpoko pertsonaia bat :
Joseph-Augustin Chaho

XIX. mendeko autore hau (Atarratze, 1811 - Baiona, 1858) Euskal Herriak ezagutu zuen pertsonaia interesgarrienetarik bat da eta, dudarik gabe, Euskal Herriko historiako idazle ospetsu eta eztabaidatuenetarik bat. Lurralde batean, hau da garai hartako Euskal Herria, zeinean konformismo sozial eta klerikala, ahal den kontserbadoreena zena, itogarria baitzen, eta baita oraino behin baino gehiagotan, gizon honen bizitza eta ideiak erabat harrigarriak izan ziren.

Atarratzeko euskaldun zuberotar hau — Pariseko Charles Nodier irakasle famatuaren ikasle izan zena ; beste alde batetik, eta jakina denez, Chaho bere garaiko idazle hoberenetarik bat izan zen, 1834eko bere obra, *Paroles d'un Voyant* izenburuarekin ezagutzen dena, Frantziako kritika literarioak aho batez agurtua izan zelarik — idazletzat, poetatzat, filosofo erromantikotzat eta esoterikotzat ukan zuen orduko ospeak.

Ameslaria, igarlea, utopista, Ekialde Handiko framazona, errepublikazalea, sozialista-iraultzailea (horrela jotzen zuen bere burua, nahiz eta garai hartako diskurtso komunistaren aurkakoa zela gaineratu) eta baita ere feminista izan zela gainera liteke.

Bestalde, ezkerreko abertzaletasun mota baten sortzailea, edo bederen aitzindari mota bat, dugu Chaho, ahantzi gabe ere talentu handiko kazetaria izan zela (historiako lehen euskarazko kazetaren sortzailea izango da : *Uscal-Herrico Gaseta*, « Euskal Herriko kazeta »). Bainan, oroz gainetik polemista porrokatua, nolabait erraitekotan, eta behin baino gehiagotan bortitza ere izan zen, entzute handiko tribuno politiko bat (haren ehorzketetara, 1858an Baionako San Leongo hilerrian egin zirenak, jende-multzo bat izigarria joan zen ; « Chahoren izena, Euskaldun guzien artean, ohoratua zen » idatziko zuen zenbait urte geroago, erran nahi baita 1861ean, haren biografo Gustave Lambertek), antiklerikal amorratua (haren ehorzketak zibilak izan ziren, ez zen erlisionezko zeremoniarik izan ; egiazki ezin sinetsizkotzat har daitekeena, garai hartako Euskal Herriko giroa kondutan hartzen badugu bederen ; geroago Vinsonek idatziko zuen lehen aldia zela euskal historian holakorik gertatzea), inteligentzia handiko abertzalea : alde batetik damu zen euskara batu baten ez existitzeaz — ideia hau, egia erran ezinago harrigarria garai hartako Euskal Herrian, aski izango litzateke Chaho ohiz kanpoko igarle batetzat jotzeko — eta beste alde batetik pentsatzen zuen euskara Euskal Herriko hizkuntza ofiziala izan behar zela ; halaber pentsatzen zuen euskararen irakaskuntza euskal lurralde historiko guzian zehar orokortua izan behar zela ; gainera Gerla Karlistetan Tomas Zumalakarregi euskal jeneralaren miresle sutsua izan zen, eta hori euskal independentziaren izenean, paradogikoa dena, zeren euskal armada, alde batetik oso katolikoa zena, ez baitzen beste aldetik independentista.

Chahok etsai ugari ukan zituen, behin baino gehiagotan Gemonietara atseginez arrastatuko zutenak, zeinek gainera ardurenean « ero »-tzat ukan baitzuten, hala nola pertsona « sutsu », « fanatiko » eta « arriskutsu » batetzat. Haietarik askok gaineratzen zuten autore « ulergaitza eta nahasia », « kazetari mistikoa », « gezurtia », « buruberoa », « intolerantea » eta

« arrazista » zela — bestalde, Frantziako autoritateek atxilotua eta gartzeleratua izan zen ; azkenik, Belgikan eta Arabako probintzian, bereziki Gasteizeko hirian, zenbait denboraz deserriratua izaitera kondenatu zuten. Guti ez balitz bezala, bere aurkakoek autore « minkorra », « garratza », « trufaria », gizon « suharra » eta « harroa » izaitea hala nola « paper gaiztoak » idaztea leporatu zioten askotan, nahiz eta « ausarta » zela admititu ; ezpatazko dueluetan parte hartzen zuen, etabar.

Chaho izenaren jatorria

Azkuek Chaho « gallego odolekua » zela aldarrikatu zuen. Justo Garatek espainierara egin zuen itzulpenean, hau da *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835) par J. Augustin Chaho* izenarekin ezagutu obraren itzulpenean, 1935ean argitaratutakoa, Chahoren familiaren jatorriak galiziarrak zirela aditzera emaiten da ere.

Ondoko urteetan, eta ezin ulertuzko arrazoinengatik, Chahori buruzko euskal adituen idazlanek eta artikuluek orok, beste ikertzaile batzuen lanak, Euskal Herritik kanpokoak, ez aipatzeagatik, ez dute ia gaia inoiz gehiago orroitaraziko, ezta azaletik ere, nahiz eta tema interesgarria izan, onomastikaren aldetik behintzat. Hainbatenaz harrigarriagoa dugu ixiltasun hori non azken urteotan zuberotar autore honen gainean burutzen diren ikerketa guziek bere bizitzari buruzko den mendreneko xehetasunak sakontzen ohi baitituzte.

Henri Gavelek, Justo Garaterekin zeukan korrespondentzian, patronimiko galiziar baten posibilitatea onartzen zuen (Gavel & Gárate, « Origen del vocablo 'Chaho' », *Fontes Linguae Vasconum*, nº 6, nº 17, 1974 : 159-164) ; izan ere, Gavelek orroitarazten zuen Galizian *Chao* deitura sarritan agertzen dela, batez ere Lugoko probintzian, izena *Zelai* euskal deituraren baliokide izanik. XIX. mendean, galiziar abertzale famatu batena izan zen, hau da Alejandro Chao idazle eta kazetari galegistarena, eta gaurregun Frantziako kantari ospetsu baten deitura dugu ere izen hori, erran nahi baita nazioarteko musikaren izar batena, bereziki Amerika Latinean, hau da Manu Chao kantari frantsesarena, Pariseko eskualdean luzaz kazetaritzan aritu zen Lugoko errepublikar ezagun baten seme dena.

Hipotesia kondutan hartzen badugu, orduan *Chaho* zuberotar deituran agertzen den *h* letra behargabeko grafia bat baizik ez dela pentsa daiteke ; XVIII. mendean, Iparraldeko notari-akta askok etimologikoak ez diren *h* batzu agertarazten dituzte pertsona- eta leku-izen ugarietan, edo batzutan ere frantses hitz zenbaitetan ; zoritxarrez eskualde horietan erabiltze grafiko horren egiazko arrazoina, itxuraz behintzat arrunt anarkikoa, oraino ezezagun zaie adituei, guk dakigula bederen.

Azkenik, Gavelek orroitarazten zuen beste patronimiko baliokide baten existentzia Zuberoako probintzian, edo, hobeki erran, denborarekin zuberotar bilakatu izen bat, nahiz eta jatorriz Aragoikoa izan, hau da *Charo* deitura, Aragoiko herrixka batetik datorkiguna, zeinak erran nahi baitu « jatorriz Charo-ko herrikoa ». Abizenak Mauleko eskualdera bizitzera etorria zen Aragoiar baten ondorengoak izendatzen ditu, erran nahi baita euskal lurralde bat, Zuberoa, non, jakina denez, azken mende hauetan inmigrazio aragoiarra beti garrantzitsua izan baitzen.

Hala ere, Zuberoako izen hori aztertzerakoan zailtasun bat sortzen da, beti Gavelen arabera : ezinezkoa zaigu jakitea, aipatu berri ditugun bi kasu horietan egiazki izen bera izaitekotan, zer-gatik *Charo* izenean bokal arteko kontsonante dardarkari bakuna (*-r-*) kontserbatu den eta Chaho familiaren izenean, aldiz, ez.

Laburbilduz, eta teorian bederen, jatorri galiziarra onar liteke *Chaho* izenarentzat, Azkuek eta Garatek pentsatzen zuten bezala, nahiz eta Aragoiko izen bat izan dadin posibilitatea

dugun ere. Eugène Goyhenechek ez ote zuen idazten, duela zenbait urte, Chahori buruz : « Gaizki ezaguna da oraino [Chaho], ez ezagutua izan izanaren ondoren : artxiboetan ez da bere familiari buruzko ikerketarik egin (...) » (Goyheneche, « Un ancêtre du nationalisme basque : Augustin Chaho et la guerre carliste », *Actes du I^er^ colloque international des études basques organisé à l'Université de Bordeaux III* par le professeur Haritschelhar, mai 1973).

Hala ere, badugu segurtasun bat : Chahoren burasoak eta aitamatxiak zuberotarrak ziren. Autorearen balizko jatorri galiziarrak, frogatzekoak direnak, nahiz eta Azkuek egiazkotzat zeuzkan, egiazki benetakoak izaitekotan, zeraman deiturak pentsatzera utziko lukeen bezala, aspaldikoagoak ziratekeen.

XVIII. mendearen erdian, Angeluko lapurtar parropiako notari-aktek Pontevedrako Galiziar bat aipatzen dute, zeina parropiako etxe batean kokatua baitzen, iduriz behin betikotz. Beraz, garai bertsuan Galiziar bat kokatzea Zuberoako probintzian ez litzateke ezinezkoa. Chahoren familiari buruzko ikerketa genealogiko baten egiteak, orai arte sekulan egina izan ez dena, erantzunen bat edo beste ekar lezake.

Jakina denez, XIX. mendean, galiziar abertzaletasunaren aitzindari famatuena, eta beste alde batetik Galiziar Hizkuntzaren Akademiaren sortzaile nagusia izan zena, Manuel Murguía, Galizian kokatua zen euskal familia batetik zetorren (bere ama Concepción Oihartzungoa zen) ; beste adibide batzu emaitekotan, garai hartako beste galiziar famatu batzuen deiturak aipa daitezke ere, adibidez Aurelio Aguirre poeta galiziarrarena, XIX. mendearen erdian bizi izan zena, edo garai bertsuko Leandro Saralegui kazetari galegistarena, O Ferrol-ekoa jatorriz. Beraz, baliteke, zergatik ez, Azkuek arrazoin ukaitea.

Euskal populuaren iragan denboretako koblakari bat : Lara

Chahok idatzi zuen Aitorren kondaira edo legenda benetan izan zen, eta gaurregun jarraitzen du oraino izaiten, ohiz kanpoko ipuin bat, zeinean, besteak beste, Atarraztarrak euskararen gainean zeuzkan ezagutza linguistikoak, behin baino gehiagotan egiazki maila handikoak, erakusten baitizkigu, nahiz eta gaurregun berak proposatutako euskal hitzen etimologia gehienak askotan oso diskutigarriak izan. Bere biografo Gustave Lambertek testua « oso maila handiko epopeia tipi » batetzat jotzen zuen.

Chahok Barduliarren koblakari bat erakusten digu, azken hauek, hau da Antzinateko Barduliarrak, jakina denez, gaurregun gipuzkera euskalkia hitzegiten duten populazioen arbasoak zirela suposatzen delarik. Koblakaria bildua den herriari mintzatzen zaio. Euskal nazioaren balizko sortzaileaz mintzatzen zaio, erran nahi baita Aitor deitutako ustezko patriarka batetaz. Zer nahi den, Chahoren irudimenetik sortu koblakari horrek izen espainiarra darama : Lara.

Gaztelako familia izen zaharra da : Fernando González-Doriak orroitarazten du, *Diccionario heráldico y nobiliario de los reinos de España* delakoan, Espainiako patronimiko zahar hori « jatorri-izen » bat dela, erran nahi baita Gaztelako antzinako herri baten izena, zeina, Arabiarrek suntsitua izan eta gero, Alfontso erregeak, « Katolikoa » izengoitiaz ezaguna, berreraikitzeko manatu baitzuen. Gaurregun Espainiako deituretan zabalduenetarik bat dugu Lara izena, Iberiar penintsula guzian zehar aurki daite-keelarik.

Chahok zeukan Gaztelarren aurkako higuina ezagututa (autoreak idazten zuen : « Mairuek menperatu arraza bisigotikoa, uztarri islamikotik Pirinioetako federalismoak askatua izan

zena »), tamaina horretako inkoherentzia bat ezinago harrigarria gerta lekioke bati baino gehiagori. Chaho konturatu ote zen funtsgabekeria horretaz, hau da, izen hori komunzki zeramatenak Gaztelako familia zaharrenak zirela ? Edo pentsatzen ote zuen, paradoxari ezer aldatzen ez duena, Juana de Lara deitu pertsonaia historikoari, Gaztelako infanta eta « Bizkaiko eta Larako anderea » izan zena (1355-1359) ?

Aitor, euskal nazioaren legendazko sortzailea : izenaren historia eta jatorria

Euskal ikasketei ekiterakoan, autore errespetagarri eta seguruenak kondutan hartu behar dira : Resurrección María de Azkue, euskal lexikografiaren arloan espezialista hoberenetarik batetzat hartzen ohi dena, horietakoa dugu. Bere *Diccionario* famatua kontsultatzen badugu, hurrengo definizio hau irakur daiteke : *Aitor* : « Euskal Herriko legendazko patriarka, zazpi alabaren ustezko aita, zeinek zazpi euskal eskualdeak errepresentatzen baitzituzten (...) patriarka, gehienetan (...) lur joria (...) aitorpena » ; urrunxago, Azkuek bere buruari galdetzen zion : « Ba ote letorkiguke hitz hori akats batetik, AITON forma batetik ? ». Eta jarraian ondoko hitz hau aipatzen zuen : *aitorralaba*, « emakume noblea », hau da *-rr-* dardarkari gogor batekin ; eta azkenik, beste ondoko hitz hau : *aitorren seme,* hemen ere *-rr-* dardarkari gogor batekin, erran nahi baita « Aitorren semea (horrela deitzen zaie nobleei Lapurdiko probintzian) ».

Hemendik aitzina beharrezkoa zaigu zenbait zehaztasun aipatzea Azkueren testu honen irakurketak ekar lezakeen elkar ez ontsa aditze edo gaizki ulertze oro desagertaraztearren. Lerro horietako irakurleak, euskararen espezialista izan dadila edo ez, pentsa lezake, lexikografo bizkaitarrak gai horietan zeukan autoritatea ikusita, Azkuek aipatutako berba hori *hitz herrikoia* dela, erran nahi baita Lapurdiko herri xeheak belaunaldiz belaunaldi erabilitako hitz batekin topo egiten duela.

Azkueren testuaren edukiak pentsaraz lezake. Hala ere, guk dakigula bederen, Lapurtarrek, Behe-Nafartarrek eta Zuberotarrek ez zuten sekulan kontsideratu Iparraldeko nobleak Aitor deitu legendazko pertsonaia baten ondorengoak zirela ; bestalde Azkuek emaiten duen ahoskera, erran nahi baita *-rr-* dardarkari gogor bat agertarazten duena, ez da, guk dakigula, jatorrizkoa, nahiz eta Hegoaldeko idazle batzuek behin baino gehiagotan beren obretan erabili zuten, adibidez : Antonio María Labaien, Kaietano Sánchez, Pedro Mari Otaño, Arturo Kanpion, Txomin Agirre, Pablo Zamarripa, Eusebio Erkiaga, Felipe Arrese Beitia, etabar.

Badakiguna, aldiz, zera da : Chahok *aituren seme* edo *aitoren seme* erran-molde herrikoia (hau da, Iparraldean beti *-r-* dardarkari bakun batekin agertzen dena, azken hau dudarik batere gabe jatorrizko forma delarik) Zuberoako mintzamoldetik hartu zuen, zeren, jakina denez, zuberera Atarraztarraren burasoen jatorrizko euskalkia baitzen, jakinez beste alde batetik, azpimarratzekoa dena ere, *aituren seme* edo *aitoren seme* erran-molde famatu hau, Lhandek berak orroitarazten zuen bezala, bera ere jatorriz eta izaitez euskaldun zuberotarra zena, *aitonen seme* euskal erran-molde komunagoaren Zuberoako aldaera dialektala baizik ez dela azken finean ; ikus ere *aitoralaba* Zuberoako hitzaren kasua, hau da « alaba noblea » (hemen ere *-r-* batekin).

Dena dela, erran-molde herrikoi horren jatorria jakitea, batez ere *aitur- / aitor-* segmentuarenari dagokionez, gehienetan uste den baino askoz delikatuagoa da.

Horrek esplikatzen du zergatik Azkue duda-mudatan zebilen, galdetzen zuenean : [*aitur- / aitor-* segmentua] *aiton* hitzaren aldaera bat izango ote da ? Teorian, bainan teorian

bakarrik, iduri du hori horrela dela. Bainan nola zubererak, euskalki periferikoa dena, arkaismo ugari atxiki baititu, baliteke ere *aituren / aitoren* forma, hitz-elkarketan *aitur- / aitor-* formapean agertzen dena, jatorrizko forma izaitea eta *aitonen* aldaera komunagoa, aldiz, forma berrixago bat izaitea, zeinetik geroago ateraiak izanen baitziren, etimologia herrikoi baten bidez, *aitonak* eta *aitunak* hitzak, hau da « arbaso nobleak » izendatzen dituztenak (ik. Lhande).

Chahorentzat hitz horrek bazituen bi erro : *aita* eta *oro*. Idazten zuen : « Les Ibères [= iragan denboretako Euskaldunak autore horrentzat] font remonter leur origine au patriarche *Aïtor* ou *Ajtjoren*, dont le nom en langue euskarienne signifie, exactement comme en hébreu, *père grand, élevé* ou *père de la multitude* ».

Ikus daitekeen bezala, gauzak ez dira oso argiak (« La expresión [hau da : *aitoren seme*], idazten zuen Mitxelenak, al igual que rom. *hidalgo*, etc. plantea diversos problemas que no es momento de discutir » ; ik. Mitxelena, *Orotariko Euskal Hiztegia*, I, 428). Egia erran, ez da gehiegi fidatu behar euskal etimologia herrikoiez, behin baino gehiagotan errazegiak baitira egiazkoak izaiteko.

Zer nahi den, egia da « zentzu onak » *aitor-* segmentua *aiton-* formaren aldaera berriago bat izaitea agintzen duela, erran nahi baita pentsatzea Zuberoako *aituren / aitoren* forma herrikoia *aita onaen seme* euskal erran-molde zahar batetik, zeina aspalditik dokumentatua baitago, datorkigula, behinolako erran-molde horrek « los hijos de casas `infanzonas´ » izendatzen zituelarik, hau da hitzez hitz « aita onen semeak, esp. `hijos de buenos padres´ » ondoko balizko bilakaera fonetiko honen ondorioz : *aita onaen seme* > **aita onen seme* > *aitonen seme* > *aitoren seme*, « fr. noble, gentilhomme, esp. `gentilhombre, hidalgo, infanzón´ ».

Dena den, *aituren / aitoren* forma izan dadila jatorrizkoa edo ez, kasu guzietan, *aituren / aitoren* edo *aitonen (seme)* erran-moldea aztertzerako mementoan, dudaz kanpo dagoen gauza bakarra zera da : *aitoren* edo *aitonen* formetan agertzen den *-en* segmentua euskal genitiboa dugu, Chahok perfektuki ulertua zuena.

Hori ikusita, Atarraztarrak ondoko ondorio hau ateratu zuen, hau da, *aitoren (seme)* erran-molde herrikoia horrela zatitu behar zela : « aitor-en semea ». Konstatazio sinple honetarik abiatuz, *aitor-* segmentu ulertezina berrinterpretatu zuen eta pertsona-izen bilakatu, aipatu *Aitor* delako hori euskotar nazioaren sortzaile mitikoaren izena zela aldarrikatzerainokoan. Ponte-izen edo izen tipi bilakaturik, izen honek ustekabeko arrakasta lortuko du Euskal Herri guzian zehar, batez ere XX. mendearen bukaeran.

AITOR

KANTABRIAR KONDAIRA

Barduliarrak. Gerekiz. Ilbeteko besta.

Koblakari inprobisatzailea.

Lara, kantabriar koblakaria, zeinari buruz Silio Italiko olerkariak deskribapen ederra egiten baitu bere epopeian, Gerla Punikoari buruzkoa, Barduliako Euskotarren edo Gipuzkoarren tribukoa zen, berdin famatua bere gudularien kementasunarengatik hala nola bere gizon gazteek zeukaten mimikarako, dantzarako, kanturako eta koblak egiteko trebetasunarengatik. Lara, zeinak hogeita hamar urte baizik ez baitzituen, gerlarien lili izendatua zuten eta koblakarien printze. Barduliarrak harro ziren haren edukitzeaz, eta beste tribuek, euskal federakuntzakoak, ezta Zuberotarren salbuespenarekin ere, ez zioten ezin konparatuzko kantari horri lehiakiderik ezagutzen. *Jatorrien* liburuan aipatu dugu Siliok dagien deskribapena, Eszipionekin ukan zuen borrokari buruzkoa. Errana dugu ere Italiako gerla amaitzekotan zegoen garaian, eta Anibalek ez zekiela garaipenaz baliatzen ikusirik, kantabriar konfederakundea aliatuz aldatua zela eta Erromarekin une batez adiskidetua zela.

Bakearen egitea Menditarrek ospatua izan zen ilbeteko bestaren denboran, hiru egunez zirauena, eta ordurako ohiz kanpoko handitasunarekin ospatu zena. Lehenbiziko gaua nazio-historiaren orroitzapenari emana zitzaion, askatasunaren haritzpean zegoen taulada baten gainean batak besteen ondotik txandakatzen ziren koblakariek egina.

Jarraiki ohiturari egindako indargabetze baten ondorioz, tribuko zaharrek Larari merezia bezain erakargarria zeukan saria eman zioten, lehenbiziko gauean, beste koblakariak oro alde batera utzirik, biltzarra libertitzeko, hala nola jende aitzinean berak asmatu kondaira bat, *Aitor* zeritzana, aldarrikatzeko manatuz. Gipuzkoarren edo Barduliarren haritza Gerekizen[1] zegoen, bederatzigarrena hogei mende baino gehiagoz geroztik, erran nahi baita Euskotarrak kokatu zirenetik Mendebaldeko Pirinioetan.

Nahiz eta ez gabiltzan garai hartan Gerekizen bildua zegoen Gipuzkoako jendearen deskribapenaren egiteko asmotan, halarik ere, irakurlearen arreta koblakariarengan, zeinaren eleak berridaztera joaiten baikara, hobeki jartzeko, zenbait hitz errango ditugu horrelako bilkuretan jarraikia ohi zen jarlekuen hurrenkerari buruz. Biribil-formako alkien gainean, eta zirkuluerdi zabal edo gero eta handiago batean, zeinean haritz eder-ederrak barneko aldea betetzen baitzuen aipatu dugun taulada edo antzokiarekin batera, agureak jarri ziren, eta beren oinetan, mailaz maila gero eta apalagoak ziren alkien gainean, atsoak, alarguntsak, gero emazteak, azkenik neskak eta tribuko haurrak oro. Biltzarreko zati ugari honen parean, gizonak, denak gudulariak edo milizianoak hemeretzi urte zituztenetik hirurogeiak bete arte, zutik zeuden, bigarren eta hirugarren eguneko dantzak, xirulen[2] eta danbolinen soinura, hala nola kantu-koru baten modura, burutu behar ziren bitarteko eremua betez. Harmonia bikoitz horrek gaueko oihartzun guziak jauzikaratu zituen Gerekizeko ibarrean, Lara etor zedin baino lehenxago : bere agertzea txalotze orokor batekin agurtua izan zen ; berehala ixilaldi sakona egin zen.

Koblakariak, bere zaurietarik sendatua, zegokion zereginera prestatua zuen bere burua. Memento hartan bizar zuri luze bat zeraman, gerriraino jausten zitzaiona. Mitra distiratsu batekin estalia zuen burua, eta bere sorbaldetan dalmatika aberatsa jantzia zuen, aztien eta igarleen funtsezko soinekoa zena, Iberiako errepublikan.

Eta, pauso serios eta dotorearekin, tauladaren bazterreraino aitzinatu zelarik, oraindik hostailaz jantzia zen haritzadar bati bermatua, zutik, hitza hartzeko prest, paisaia guzian zehar distiratzen zuen ilargi beteak argiztaturik, zaharrez mozorrotu koblakariaren soinekoa apaintzen zuten broderia sinbolikoen dirdira zilarreztatuan, bakoitzak Aitorren irudia ikusi zuen, arbaso handia, aitalehena, Indoantlantida arrazako aita, eta Euskotarren seme zaharrena.

Berehala koblakariak bere aurrean eskuineko besoa errara luzatu zuen, eta aurpegia, ilargi xuriaren isladatzeak distirant agertarazi zuena, zeru aldera itzuli. Jendearen arreta goihenera zegoen. Haritzaren inguruan eta mendien gainean nagusi zen ixiltasun liluragarrian, hostoetan haize leunen zurrumurru iheslaria baizik ez zen hautemaiten eta oraino ahulagoa zen uhar urrunen zurrumurrua, koblakariaren ahotsaren akonpainamendu misteriotsua, Aroetako Ozeanoaren gainean gogoratzeko prest, ahanztearen sakontasunetan belaunaldi hondatuak eta mende pilatuak. Ahoa ideki zuen, eta ateratu ziren lehenbiziko hitzak lehenbiziko notak bezalakoak izan ziren, artistaren hatzamarrekin erortzen diren lehenbiziko akordeak, teklatu harmoniatsu baten gainean...

— « Denborak ihes egiten du, uharrak bidaia egiten du, ibaiko urak bere bidetik jarraitzen du. Nere herria, bere jatorriaz geroztik, ibai handi bat bezalakoa izan zen, zerupean lurreko emankorta-sunaren altxorrak sortzen dituena. Gaurregun nere tribuak ur-xorta gardenak baizik ez dira, haitz bateko hutsunetan zehar sartzen dire-nak, ekaitzeko lehenbiziko haize ufakoak agorrarazteko zorian dauzkanak. Hola izan behar zen ; Jainkoak nahi izan du : Jainkoa, goiko jauna, *Jaun Goikoa*[3]**.** Bere eskuek izarrak jaurtiki zituzten ugariki soro urdinetarik, laborariaren modura, zeinak haziak ahurka barreiatzen baititu ildoen barrena, eta argia, bere bozera, betiereko gauetik sortu zen. Nere herriak, gauetik ateratua, bere eguzki eguna ere ukan zuen. Zer gelditzen zaigu distira estali hartarik ? Izarrik gabeko gau bat. Bainan ilargiak, zeinaren aldiek asteak eta hilabeteak neurtitzeko balio baitute, eguzkiaren argia eztiki isladatzen du, munduen gibelean ezkutatua. Horreletan, gure ahultasunaren gauean, zaharren orroimena eta koblakarien talentua ispilua dira, non eta guretzat lehen egunetako loria, hain urruna dena, isladatzen baita. »

Hemen, Larak pausa bat egin zuen. Jarraitu zuen. Eta sekulan, Atenaseko antzokian, erritmoaren eta eufoniaren lilurez grinatu herri baten erdian, antzezle batek ez zituen, olerkaririk harmoniatsuenaren eta musikalenaren neurtitzak izaritan[4] aldarrikatzekoan, Lararen ahotsaren eztitasuna eta dirdira ozena berdindu, bilduak ziren Kantabriarrei lehengo kondaira bat ozen irakurtzerakoan. Bertso bakoitzak, denboraldi bakoitzak, zirraraz betea zen keinu noble batez lagundua, ihakin jakintsu eta bitxi horretarik bizitze bakan bat errezibitzen zuen, harrigarrizko argitasun bat, indar bat nolabait magikoa, liburu bateko hizki hilak ordezkatzen ez lekikeena.

— « Arranoaren atzaparra indartia da, lehoiaren erpea ikusgarria eta beldurgarria ; bainan gizonaren eskua, dela lur hazlearen barnea idekitzen duena, dela brontzezko haizkora borrokan astintzen duena, dela trebeziaz lihoa eta zeta oihal arinetan ehuntzen dituena, dela harpatik akorde jakintsuak aterarazten dituena — gizonaren eskua tresna ezin hobea da, ezin garaituzko arma bat. Piramideak basamortuan eraiki ditu, zaldi hezigabea menperatu du, eta

itsasoko uhin ekaiztsuak arraunaren azpian makurtu. Gizonak haren bitartez du garaitu, menperatu (*Hes*) sorkuntza osoa, jagoitik bere erregego genesikoaren esklabo ; eta garaipen handi horren orroitzapenetan da deitua gizonaren eskua, nere herriaren mintzaira sakratuan, *Heskua*, *Eskua*, erran nahi baita garaile eta menperatzaile.

« Gizonak eskua luzatuz du galdegiten eta otoitz egiten, *Eska*. Eskuarekin du eskaintzen eta emaiten, *Esken*. Eskuaren keinu batez lagundutako irriño batek poza adierazten du ; gizonak eskerrak horrela ditu emaiten, eskerrak bihurtzen, *Esker*. Eskua hizkuntzaren laguntzailea da, eta bere erran-nahi adierazgarria jatorrizko mintzairatik bereiztezina zen. Keinua begiei mintzatzen zaie, soinuak belarria joiten duen bitartean ; biak entzungarriak zaizkio izpirituari. Zein beste herrik ukan zituen, nerea baino maila perfektuago batean, hitzaren inspirazioa eta keinuaren adostasuna pentsamenduarekin ? Mimikaren arte elokuente horrek, besoen, eskuen eta erhien mugimendu kalkulatu horiek lengoaia ahoskatua laguntzen zuten eta, beharrezkoa balinbazen, ordezkatzen : *Eskuara* deituak izan ziren, erran nahi baita keinuaren zientzia, eskuez mintzatzeko artea. Hitz berak balio izan zuen nere herriaren mintzaira primitiboa kalifikatzeko, hura bera Euskotarra deitua, *Eskualduna* !

« Nere arrazako gizonek, Barbaroen hizkuntzan asko gisaz izendatuak, izen bereizgarri hori daramate, gizadiaren seaskan zezeldua ; beren jatorria keinuaren eta mintzamenaren asmatzearena baino zaharragoa da : aztien eta igarleen begiak, sorkuntza genesikoen misterioak arakatzerakoan, Jainkoaren barnean baizik ez daki ene arraza ikusten. Zer inporta zaigu lehengo ibaia agortua izaitea, hainbeste herri sortarazi dituen odol noblearen tanta garbi zenbait baizik ia-ia ez izaitea ? Iberiar bat deno Aitorren jainkoaren aitzinean eskua altxatzeko, hizkuntza sakratuan haren izena ezin ederragoa gogoratzean, erraiten ahalko du : « Nere arbasoen aita ospetsua izan zen lurreko lehen semeen artean ; gure arrazako gizona izadi basatiaren lehen ezkongaia izan zen, sorkuntzaren lehen garailea, *Eskualduna* ! ».

Iberiako penintsulan gure ondotik bizi izan zen herririk zaharrena Keltiarren herria izan zen. Alegiek haien jatorria eta historia iluntzen dituzte. Munstro bat, ziklope bat ukan zuten arbasotzat, eta aitatzat erraldoi basati bat Keltus deitua, zeinaren bi anaiek, Illyrus eta Galla, bururaino eraman baitzuten, bere ondotik, Europako konkista. Erraldoien arraza okaztagarria Iparraldetik zen etorri, hotzeko eta ilunpeetako lurraldetik. Gure umeek *Tartaro* deitzen dituzte, neguko beiletan, iragan denboretako ipuinak entzutekoan, ama sabelaren babesaren bila eta basoetako hostoa bezala dardarikatzen ikusten ditugularik, Barbaroen basatasunaren orroitzapenetan.

« Euskotarrak eta Keltiarrak antzinatasun bera daukate ; bainan geroak bi arrazak ez ditu nahasiko. Nere herriak argi sozialaren, harmoniaren eta ongiaren sortzailea izan da : Keltusen herriak gerla baizik ez du asmatu, hondamenak baizik ez ditu erein ; bere obrak bidegabekeria, sarraskiak, sineskeria eta gaizkia izan dira. Bere oihu basatiak otsoen uluekin nahastea gustatzen zaio : haiek bezala, irensle eta suntsitzaile, ikusten zaio taldeka gauaren itzalean alderrai ibiltzen. Hontza da, bere izpirituan, jakituriaren ikurra, eta ibilera ezkutatzen duten gerlarien zuhurtziarena, hala nola biktimak ustekabean harrapatzen dituzten gerlarienarena ; huntzaren xoria, nere herriaren olerkaritzan, ergelkeriaren eta ezjakintasunaren ikurra den bitartean. Horreletan, Iparraldea eta Hegoaldea borrokan dira. Horda ilehorien loria, gurearekin berdinkatua, ilunpeak erdizka haizatuz agertzen den aurora boreala bezalakoa da, zeina argitasun gardenarekin eta hegoaldeko egun bateko eguzki distirantarekin paraleloan sar ez baitaitekeen.

« Lau gauzak bereizten dute Euskotarra Keltiarrarenganik : hizkuntza, erlisionea, ohiturak eta legeak.

« Keltiarrak mintzaira latza hitzegiten du, sortu zen herrialdeko izotz zuria bezalakoa. Bere ezpain izoztuek ez dute aberastu, euskal aditza hainbeste leuntzen duten inflexio ezpainkari

horiekin. Zeltera marrantatua den herri baten hizkuntza da, zeinean ahoskuntza sudurkariek amaigabe soinu egiten baitute eta xistu zorrotzak entzunarazten, Iparraldeko izaiak intziri eginarazten dituen ipar-haizearen parekoak, eta bular hertsatu baten eta eztarri gogortu baten sakontasunetarik ateratu karakak sortarazten, zeinek nekez baizik ez baitiote ahotsari bizitzarik emaiten. Hitzak lauso agertzen dira ; harreman faltsuak edo zalantzagarriak baizik, begiradaren lilurakeriak jaioarazten dituen fantasma hutsak bezalakoak, ez dituzte adierazten estalki grisaxkan, zeinarekin zeru hiperborealak, haietaz trufatuz, paisaia malenkoniatsuak estaltzen baititu. Euskal aditzak, aldiz, gorpuzkera zabala eta erraza duten hitzak baizik ez ditu. Bere erranaldi logikoa garatzen da ibai harmoniatsu baten modura, bere ur garbiak bultzatzen dituena, zeinak txandaka isladatzen dituen, iragaitean, zeruko itxurak eta bere urbazterren deskribapen aldakorrak. Bere hasperenketek, bere eztarriko hotsek, bere hizki azkarrek, beti daukate helburutzat izadiaren antzeratzea eta harreman jakintsuen adieraztea. Bere hitz zeharrargitsuetarik[5] bakoitza, pentsamendua biltzen duena, ihintz-tanta prismatikoak bezalakoak dira, zeinak, goizeko egunsentian, lilien kokotsetarik esekitzen baitira.

« Euskal arrazako gizona eta emaztekia, lurreko baratzetan sortzailearen eskuak ezarriak izan zirelarik, elkarri maitasunez begiratu zioten ; eta emaztekiak gizonari erran zion : — Zu zara ene indarra, zu arra, nere bihotzak hautatu duena : *Zu ene arra* ! Eta geroztik, emaztekiaren gizona *Senarra* deitua da hizkuntza sakratuan. Gizonak eta emaztekiak elkarri eskua eman zioten, *Eskua* ; eta bateratze xarmangarri honen zoramenean, erran zuten *On*, ongi da ! On da ; gozoagorik ez da deus. Eta geroztik ezkontzari, tribuetan, deitzen zaio *Ezkuontza* ; erran nahi baita egintza zeinaren bidez bi maitale hartzen baitira senar-emaztetzat, eskua elkarri emanez. Ezkondu berriei eztia emaiten zitzaien, *Ezti*, atsegin hobezinen ikurra ; hortik dator eztei-jaia *Ezteia* deitu izana. Zein herri egon zen, euskotarra kenduta, izadiak inspiratuago eta zein herrik jarri zituen bere lehenengo erakundeetan xarma eta soiltasun gehiagorik ?

« Gizonaren esku garailea bost zenbakiaren irudia den marrazki hieroglifiko baten bidez irudikatua izan zen : V ; esku ideki bat delineatzeko balio duena ere. Alta bada zenbaki harmoniko horrek soinuaren ezaugarriak oro dauzka, inarrosten diren gorputz guzietan bostarteko bitartean behin[6] dar-dar egiten duena. Eta bosta, beraz, soinua edo ahotsa deitua izan zen, *Boz* : hortik dator *Bozkario*[7] hitza, kantatzen duen gizonaren alegrantzia adierazten duena, haragitze ororen alaitasuna, zeinaren zoriona aditz ozenak adierazten duen. Bateratu bi eskuren hieroglifoa, X, gizonaren hamar erhiena, hamar zenbakiaren zifra bilakatu zen, Egiptoko jarraitzaileek *Mariage* deitzen dutena, eta gutartean *Hamar*[8], erran nahi baita arra eta emea, zenbakien belaunaldiaren sortzaile gisa, batuketa hamartarren bidez. Bi esku kurutzatuk maitasuna eta adiskidetasuna adierazten dituzte. Horra zergatik euskal nazioaren tribu bakoitzak agertarazten duen bere esku zizelkatua zutoihal nazionalaren gainean, aliantza eta federakuntza zeinu. *Labarum* horren gainean ikurritz bat idatzia da ; euskotar eskuek (X) bat baizik ez dagitela aldarrikatzen du, *Bat*. Batasunaren izen horrek, *Bat*, *Batkia* hitza sortarazi du, ideia beraren bidez bakea definitzen duena ; ordena ona, lege perfektua, konkordia gozoa eta armonia soziala interesen, sendimenduen, iritzien, pentsamenduen eta borondateen gogaidetasun perfektuenetik sortzen direla hobeki entzunarazteko, egiazko zibilizazioaren batasunean ; unibertsoan Jainkoak ezarri betiereko ordenaren irudi ahula.

« Horrela, gizonak izadi basatiari gaina hartu izanak eta nere herri primitiboaren arrazoinezko izenak, mintzoaren fenomenoek, keinuaren zientziak, maitasunak, ezkontzak, izaki bizidunen eta ideien belaunaldiek, armonia musikalaren legeek, zenbaki matematikoenek, beren kontsakrazioa keinu genesiko[9] berean ukan zuten, zeina eskua baita, handitasun eta ospagarritasun ikur. Zein beste herrik jakin zuen lurrean, nerearekin pareka daitezkeen herrien artean, zuzentasun, sakontasun eta goraipatze gehiagorik ezartzen bere mintzairan eta bere ikusmoldeetan ? ».

Une horretan, koblakari inspiratuaren begiek magiazko su batez distiratzen zuten ; ezkerreko eskua lurrari begira jarria zen, eskuineko eskuak zerua erakusten zuen. Entzuleria guziarenganik ateratzen zen onespen zurrumurru bat izan zen. Lara denbora une batez mintzatzetik gelditu zen ; bazirudien goaitatzen zuela hodei batek, airetan flotatzen zirenetarik bat, ilargi-diskoa estal zezan, eta bere itzal beltza mendien gainera jaurti zezan, Iparralde iluneko herriaren eta Hegoaldeko herri zibilizatuaren arteko paraleloa jarraitzeko.

« Espainia konkistatu ziguten garai hartako Keltiarrak ez ditugu jujatu behar beren ondorengoek egin zutenarengatik, zeinak, nere herriarekin egin itunen ondorioz, Keltiberiarrak deituak izan baitziren, ezta Galiarrek eginarengatik ere, zeinen ohiturak leundu baitira Grekiarrekin eta Akitaniako gure anaiekin burututako merkataritzaren bitartez, nahiz eta Galiarrek eta Keltiberiarrek beren arbasoen izaeraren eta fisionomiaren ezaugarri nabariei oraindik eusten dieten. Keltiarra bere seaska hiperborealean hartu behar da, Barbaroa zer zen, Hegoaldean barna bere lehen indarrezko sartzeak egin zitueneko garaian, ideia zehatza ukaiteko. Hona bere deskribapen zehatza. Iparraldeko gizona nabari da bere kaizu handiarengatik ; benetan erraldoia da. Odolak bere ile horail eta lodiak tinta sutsu batez gorritzen eta koloratzen ditu : bere begiek, urdin berdexkazkoak, zeinetan pentsamendu basatiak irakurtzen baitira, Ozeanoaren kolorea antzeratzen dute, zeru ekaiztsu baten islez goibeldua. Lehen Aroan Barbaroa biluzgorri zebilen, bere larruazalarekin, zeina zuritasunean elurrarekin, edo itsaso izoztuetako kostaldeetan gaindi dabilen hartz urlehortarraren larruarekin, konparagarri baitzen. Luzaroan, ihiziko emaitzari esker, alderrai bizi izan zen, basoetan gero eta ugariagoak ziren elur-oreinari eta basa-idiari segika ibiliz, azkona eskuan zeukala, Galietako oihanetarik barna joaiterainokoan. Bere oldar geldiezinak eta bere izaera ezinegonaren neurriz gabeko higikortasunak artzain-bizitzari edo soro-lanei lotzea eragotzi zioten ; odola ixurtzea eta lapurketan aritzea atseginago izan zitzaizkion, artalde baketsu bati poliki-poliki jarraikitzea baino, edo labakien bazterretan beranteko fruituak, zeinekin lurrak laborariaren izerdiak pagatzen baititu, igurikitzea baino. Beraz ohoin ausarti bilakatu zen, pentsamendu txarra, gerlara bultzatzen zuen jeinu krudela, jainkotu zituen, eta konkistak egitea baizik ez du amestu.

« Zer desberdinak gure arrazako gizonak ! Batez ere mendi horietan kokatu aurretik ; beren burua babesteko bidezko eskubideak eta premiaren lege tristeak batailen jainkoari sakrifikatzera eraman zitzaten baino lehenago, Barbaro inbaditzaile gisa. Izaitez baketsuak eta ez kaltegarriak beste herrientzat, izadia menperatzeko zegitzaten ahaleginetan baizik ez ziren ausartak agerturik, sortze sozialetan baizik ez ziren saiatuak, zeinen ondorio onuragarriak gizateria osoaren herentzia bilakatu baitira. Beren kaizua tipia zen, beren indarra arrunta ; hegoko klimaren eraginak beren adats luzea kizkurtua eta ilundua zuen eta larrua gorribeltz bilakatu. Gure neska gazteak harro ziren koblakariek haien edertasuna mertxikarenarekin parekatzen zutelarik, zeinaren urre-koloreko azalak usaina eta arrosa-koloreko tintak, haren heldutasuna agertarazten dutenak, eguzkitik hartu baititu. Euskotarrak, Iberiarrak, kontinente emankorrenetan eta izadiak edertuenetan zehar hedatuak, lehenengo alhatzaileak eta lehenengo laborariak izan ziren, Patriarken garaian.

« Neretzat, erran zuen zaharrak, nahiz eta Arbasoen lehen semea izan, ez naiz uholde aurreko denboretan bizi izan, eta ez ditut Jainkoaren sorkuntzen gauza miragarriak ezagutu : ez dut nere arbasoen historia ezagutzen, zeren sugarren inbasioak eta uren uholdeak, zeinak gizonen lurrarentzat bigarren sorkuntza bat izan baitziren, nere bizitza iragan denboretarik bereizi duten. Gizonaren sortzea, hondatuak ikusi ditudan kontinenteetan, ohiturak kondutan har ez ditzakeen urruntasun helezin bati dagokio, zeinari buruz ametsak bezalako orroitzapen

ilun eta nahasiak baizik ez dauzkadan. Antzinako arrazako azkena, mende berriaren lehenbizikoa, aitek zeukaten bezala patriarka daukat nik ere izena : zeruan dauden izarrak baino ondorengo ugariago baten enborra, urakanak nere arbasoak, lur-azalera osoan gaindi hedatuak zirenak, irentsi zituen ; gutik ihes egin zuten. Koblakariek kopuru tipi hori uztaren ondotik olibondoan oraino dauden olibei konparatzen diete, aihen murriztu eta horixketarik zintzilik dauden mordoei, mahats-biltzea egin ondotik. Haiek dira, ni naiz belaunaldiek buraso hitzarekin, hain berezkoa dena, deitzen dituztenak, aitamatxiak ; nabarituko duzue *askazi* hitza, zeinak gure hizkuntzan ahaidegoa izendatzen baitu, eta *askoazi*[10] hitza gauza bera direla, erran nahi baita hastapeneko edo jatorrizko hazia.

« Ekaitza bortitza eta izigarria izan zen ; urte bat iraun zuen, zeinaren hilabeteak mendeak izan baitziren. Zeruaren ekialdea suntsitua izan zen, eta inork ez daki non kokatua zegoen Aro Zaharreko mendebaldea ; zeren eguzkia ikusezin egon zen guretzat, ortzia ebasten zigun lurrun-pabiloi itzaltsuaren gibelean. Zeruan agertzen zitzaizkigun zeinuek ikaratzen gintuzten. Non nengoen zalapartaz eta suntsiduraz bete egun haietan ? Ezkutua nintzen, erran nahi baita ezin hurranduzko tontorretara igana (*Gordatu*). Ihurtzuriak jo haitz baten azpian aterpetu nintzen (*Harri*[11]), eta gailur babesgarri hura nere arka (*Arka*[12]) izan zen. Arranoa nere arrokaren gainean kokatzera zetorren, arrangura-garrasiak eginez ; *Arrano* izendatu nuen : lehoi dardaratsua nere oinetan etzaten zen, xakurtxo bat bezala intzirika. Kondatua izan zaizue, alegia batean, Gorgon ikaragarri bat ikustean, gizonak eta animaliak harri bilakatu zirela : nihaurek ditut ikusirik, egun larri haietan, sorkuntzaren izaki bizidun guziak izialduraz idortuak : horra zergatik gizon harrituaren ideia hitz bera baten bidez (*Harritu*[13]) adierazten nuen, harri bilakatua, izialduraz hartua ; Barbaroek, alegia bat egiteko helburuz, zehatz-mehatz itzuli duten konparaketa bortitza. Sekulako lazturak hil-zeinu bat kausatzen du, hortzikara bat, hozkirri bat larruazalpetik dabilena ; odola geldiarazten du zainetan eta izaki bizidunak harridura batez joiten ditu mugitzeko eta mintzatzeko ahalmena kentzerainokoan : hauek dira, izaitez, nere hizkuntzan lazturari eta beldurrari lotuak diren hitzek adierazten dituzten irudiak. Nere ezpain dardarakorrak luzaroan mutu gelditu ziren ; mintzamena hila zen nitan : ixiltasuna hitz baten bidez adierazten nuen (*hitz-il*[14]), zeinak mintzoaren deuseztatzea erran nahi baitu.

« Alegia batean kondatua da printze bat zenbait denboraz basapizti bilakatua izan zela ; bere azazkalak atzaparrak izan balira bezala hazi zitzaizkiola, ile luze batez estali zela ; alegiaren errege hori, ni naiz. Egun zuen alorrak urre-koloreko uzta ugariz estaltzen dira ; eta euskotar errepubliketako egun ederretan, Iberia Europako bihitegi bilakatua zen : dominetan bular handia zuen emazte eder baten irudipean irudikatua zen, bere eskuetan galburuak zeuzkala. Bainan emaiozue kasu *Alha* hitzari, bazka izendatzeko darabilzuena, eta *Alor*[15] hitzari, zeinaren bidez alorrak izendatu bainituen ; nere ondarearen lehenbiziko alorra larratz bat izan zela ulertuko duzue, non eta, alegiaren zentzuaren arabera, idi baten modura belarra bazkatzen bainuen.

« Beste alegia batek lehenbiziko gizona eta lehenbiziko emaztekia mendi gora batean ihintzetik bizi izan zirela kondatzen du, uholdearen denboretan ; bainan gure olerki sakratuetan Barbaroek irakurri behar izanen zutena ez da ihintz (*Ihitz*[16]), baizik eta *ihize*, ihizia, ehiza : alabainan, erdiets nezakeen ihizitik bizi nintzen ere, eta nihauren eskuekin zatikatzen nuen haragiki gordinetik, odoletan zegoena.

« Alegoria bat kondatua izan zaizue ere zeinaren arabera mendi zabal baten gailurrean ezin zenbatuzko giza-multzo batek sorginkeria sekular baten ondorioa jasana baitzuen, mendiko lurzoru osoan gaindi hedatzen ziren haitz eta harri formapean gorpuztuta. Patuak hautatu heroi gazte bat, aitzinetik zihoan bola baten biraketak eta xori argitsu baten jainkozko kantuak gidatua zena, mendi tontorrera iritsi zen : aurkitu zuen, zedroak baino goragoko ereinotz baten adarrean, fenixa, zeinak bere mokoan urrezko abarra baitzeukan, eta hartu zuen ; eta,

bapatean, sorginkeria deseginda, belaunaldi metamorfizatuek beren jatorrizko formak berrartu zituzten eta beren askatzailea erregetzat izendatu. Kondatua izan da ere uraren eta suaren bitartezko uholdearen ondotik, lehenbiziko gizonak eta lehenbiziko emaztekiak, begiak hetsirik, beren gibelean harri kopuru handia jaurtiki zutela, zeinetarik gizonak eta emaztekiak ilki baitziren. Alegoria horiek, zuen artean dauden haurtxoen jakin-nahi handia libertitzen dutenak, eta zeinak haurtxoek berek ulertzen baitituzte, haitzetarik eta harpeetarik jautsitako Patriarkei dagozkie, hala nola uholdearen ondoko gizarte berrien sortzeari. Gure aterpea izana zen arkaren alderako esker onez beterik, mundu zaharraren hondoratzetik ihes egindako mendi gora horien iraupenaz harriturik, haien iraunpen sekularraren ideia kontsakratu nuen, izen bera, hau da *Mendi, Mende,* mendeei eta mendiei emanez.

(jarraitzen da)

Oharrak

[1] Jatorrizko testuan : *Ghérékiz.*

[2] Jatorrizko testuan : « (…) au son des galoubets (…) ». CNRS-eko *Le Trésor de la Langue Française* deitu hiztegiaren arabera : « Petite flûte à bec à trois trous (plus élevée de deux octaves que la flûte traversière), en usage dans le Midi de la France principalement comme accompagnement du tambourin. (…) *Une vingtaine de contrebandiers (...) ont chanté des airs basques en chœur avec accompagnement de galoubet* (MÉRIMÉE, *Lettres à une inconnue*, t. 2, 1870, p. 294). Euskaraz *xirula*, ald. *xirola*, *xiula*, « flûte de ménétrier, de tambourineur » ; ik. Lhande.

[3] Jatorrizko testuan : *Iaon Goïkoa*.

[4] Jatorrizko testuan : « (déclamant) en mesure » ; euskaraz itzuliko genuke : « izaritan (aldarrikatuz) » ; ik. Lafitte, *Euskal literaturaz*, Patri Urkizuren edizioa, Euskal Editoreen Elkartea, 1990 : « Airea, hasteko, arras arrotza iduritzen zitzaidan, usaiaz kanpoko *izaritan* emaiten baitu bertsua : 6, 7, 7, 12, 7, 7, 6 hizkirekin ».

[5] Jatorrizko testuan : « (…) Chacun de ses mots translucides (…) ».

[6] Jatorrizko testuan : « (…) qui vibre par quintes (…) », erran nahi baita, *quinte*, « intervalle de cinq degrés dans l'échelle diatonique », hau da, eskalako ondoz ondoko bost notak osatu bitartea.

[7] Jatorrizko testuan : *Boztarioa*, Zuberoako hitza ; ik. Lhande.

[8] Jatorrizko testuan : *Amar*.

[9] Jatorrizko testuan : « génésique », erran nahi baita, qui ressortit à la reproduction sexuée et par extension à la sexualité. Synonyme : *génétique*, *génital*, *sexuel*. *Instinct, sens génésique* ; *plaisirs génésiques* » ; ik. *Le Trésor de la Langue Française*.

[10] Hau da, Chahorentzat *as(te)ko hazia*, erran nahi baita « hastapeneko hazia ».

[11] Jatorrizko testuan : *Arri*.

[12] Jatorrizko testuan : *Arkha*.

[13] Jatorrizko testuan : *Arritu*

[14] Jatorrizko testuan : *itz–il*. Chahorentzat hitz horrek baduke segur aski zerbait ikustekorik *izil* hitzarekin ; ik. Lhande : *izil*, ald. *ixil*, *isil*.

[15] Jatorrizko testuan : *Alhor*.

[16] Jatorrizko testuan : *Ihits* ; Iparraldean *Ihitz* hitza *Ihintz* hitzaren aldaera da. Bestalde, badugu ere beste hitz bat : *Ihitz* edo *Ihitza*, Iparraldean *Ihitze*, « fr. jonchaie, esp. juncal ».